

Tokien izen askok oroiterazten digute lamia edo lamina: Lamiategi, Lamindamia, Laminosina, Lamuxain, Lamusin, Lamiarri, Lamien-leze, Laminzulo, Laminatea, Lamiñozin, Laminerreka, Lamindano, Lamiaran, etab.

1. Lamien izatea

Lamiarik ote den galdetzen baduzu, askok erantzun ohi du: "Izena duen guztia omen da". Horien bizilekuak zenbait harpe eta zenbait osin edo urgeldi omen dira: Laminzulo (Isturitzeko harpe ospetsua, lehen gizakien aterpea), Maltsoenborda (Urepelen), Okamika (Gizaburuagako harpea), Salturri (Arrasateko harpea, izen bereko baserri-etxean). Ik. Harpea.

2. Lamien egintzak

Lamia asko *Mari-ren menpeko edo laguntzailetzat ageri zaizkigu esaeretan. Beren egintzak: batzutan, Mari-ren aginduz, bai-ari eta ez-ari emandako gauzak bildu edo beraietaz jabetu, eta harri-jasak jaurtiki zenbait herritan; bestetan, *trikuharriak egin (Arrizala-koa eta Mendibe-koa), *harrespilak edo cromlech-ak eraiki (Zuberoan), zubiak jaso (Bidarraín, Ligi-n, Torre-auzo-n, etab.), etxeak eraiki (Larramendi Juxue-koa eta Urdinarbe-ko Gentein), jantziak edo oihalak uretan garbitu, eta inoiz nekazariei gauzez alor-lanetan lagundu.

3. Lamien azkurria

Badira diotenak, ez-etik eta bai-tik bizi direla, Mari bezala; baita beraiek eskean biltzen dituzten ogi, arto, urdai eta sagardotik ere, edota jendeek eskaintzen dizkien ogi, gaztanbera edo esnetatik.

Lamiek beren beharretan eskatu ohi zien laguntza gizon-emakumei; baita ordaindu ere horien lana. Zugarramurdi-n Sorginen-lezean bizi ziren lamiek heuretako bati erditzen laguntzera Lekuberri baserriko etxeoandeari dei egin omen zioten. Lana amaitzean, saritzat eman zizkioten urrezko linea eta ardatza, esanez bere etxerakoan ez zezala gibelera begiratu. Lekuberri-ko etxeoandreak ez zuen gibelera begiratu; baina bere etxeo atean oin bat sartu zuenean itzuli omen zituen begiak atzealdera, eta berehala galdu omen zuen sariaren erdia.

Zugarramurdi-ko kondaira hau beren herrietako harpeetan gertatu bailitzan kontaktu ohi dute Ituren-en, Lakarri-n, Eskiula-n, Isturitze-ko harpe ospetsuan, Abaurrepe-n, Iabar-en, Gizaburuaga-n eta Kortezubi-n (Santimamiñe-ko harpean).

4. Lamien gauzakiak

Horien artean oso aipatuak dira urrezko orraziak. Inoiz gizakiak ohostu die horrelako orrazia. Baina lamiek, zigorraren meha-

txupean, ohostu duena itzulerazten diote. Hala gertatu zen Ataun-go Laminosina-ren ondoan zegoen orrazi bat zela eta. Auzoko emakume batek ohostu omen zion. Gauean, horren etxe-ingurura joanda, lamiak hots egin:

Andra Geazi
Ekatzu nere orrazi
Bestela galduko dizut
Zure ondorengo azkazi.

5. Lamiak, gizakien laguntzaile

Esaera bada, lamiak lagundu izan diela beraiei opariak eman dizkien gizon-emakumei; baita, ordea, bahitu ere inoiz. Lamiak bahitu ez dezan, bakoitzak eraman behar omen ditu berekin erruda eta apioa, edo gabonetan irundako hariak egindako jantzia erabili.

Gizakiak, aldiz, bahitzen ditu lamiak, baldin San Joan edo Donibanez sorturiko idi edo idiskoen bidez areaz narratzen baditu laminosinak.

6. Lamien bukaera

Lamien azkena, esaera batzuk digutenez, elizkanpaien hotsak ekarrerazi omen zuen. Beste batzuren eritziz, berriz, kristauren *otoitzak izkuterazi omen zituen. Badira diotenak ere, *ermita edo elizañoek uxatu zituztela hemengo lamiak. Bada Sara-n esaera, hango hamalau elizañoak horretarako eginak direla.

Ik. Izadi-erlijioa Euskal Herrian; Mitologia.

Joxemiel Barandiaran

Lana

Orokorki, helbururen bat lortzeko edo-nork nahiz edozerk ipintzen duen iharduera da. Hertsikiago, berriz, gizakiak zerbait sortzeko edo eraldatzeko asmoz ipintzen duen iharduera, baita ondorioz ateratzen den obra ere.

Hiru elementu ditu funtsean lanak: asmatan den helburua, hori lortzeko iharduera eta nekea, zerbait lantzea (sortzea, berriztatzea, nahiz eraldatzea); alde horretatik izaki arrazoidunari dagokio batez ere lana. Natura edo izadiaren eta kulturaren artean dago lana, hura lantzea bait da kultura. Gizakiak —edo edozein izakik— *izadian bere eskua sartzea esan nahi du lanak; puntu honetan aurrez aurre egiten du topo erlijioarekin, eta hauetako bakoitzak bere ikuskerak izan ohi du lanari buruz.

Bi jarrera nagusi daude funtsean:

a) Izadia edo natura sakratua eta ukitu-ezina da; lanak profanatu egiten du hori. Badaude zenbait erlijiotan sinesteak eta

erritoak, lanaren ikuskera hori adierazten dutenak: Antzinako *budismoko aitortzaren formularen bekatutzat hartzen dute *monakoak lurra lantzea edo landu eraztea; oparitan eskaintzen zuten animaliak uztarria eraman gabea izan behar zuen.

b) Izadia edo natura gizakiaren laguntzaren eske dago, Jainkoak harentzat nahi duen aurrerapenera eta helburura eramateko. *Konfuzianismoaren arabera, Yang printzipioari laguntzera behartuta dago gizakia; *Parsismoaren arabera, berriz, gizakiak bere kulturagintzaren bidez lagundu behar dio Ongiari Gaizkiaren kontrako borrokan.

Badira kultur heroi jainkozkoak, gizon-emakumei halako lanbideak erakutsi dizkietenak. Era berean, lanbide bakoitzak bere jainko babeslea eduki ohi du sarritan. Ik. Kultur heroia.

Kristautasunak lanari buruz duen pentsaera, hasteko behintzat, Genesiako 1. kapituluaren oinarritzen da, non Jainkoak munduaz jabetzeko agindua ematen bait die gizon-emakumei. Lanari lotuta doan nekea, berriz, bekatuaren ondorioztat ulertzen du. Jainkoaren kreazioaren parte hartzearen erara jotzen ditu mundua lantzea eta kulturagintza kristau-teologiak.

Hala ere, asteroko atsedenaldiaren legea hartu du *judaismotik, munduari, horko *ondasunei eta bere obrei buruz gizakiak gorde behar duen askatasuna adierazteko, mundua menperatzeko langintzan gizartearen sortzen diren okerrak zuzentzeko, inor zapaltzeko bide gertatzen den lanari neurriak eta mugak jartzeko, eta Jainkoa jauresteko. Helburu horixe du bereziki judaismoan *jubileu-urtearen erakundeak, atsedena eta amnistia sozialaren urtetzat hartzen bait zuten.

Lanaren (zientziaren eta teknikaren) bidez munduaz jabetzea bere jainkozko *deiera eta erlijiozko *beharra du gizakiak: "beharra" deritza hain zuzen lanari bizkaieraz. Jainkoaren jabetasun absolutua aitortuz eta gizakiaren beraren askatasuna gordez, ordea egin behar lana.

Ik. Mundua; Kreazioa; Betiko atsedena.

Paulo Agirrebaltzategi

Lan onak

Ik. Egintza onak.

Landarejaletza

Erljio askotan aurkitu ohi da haragi-motaren bat jateko debekua, erabatekoa edo aldi jakinetakoa.

Landarejaletza erabatekoa jainista zin-

tzoek gordetzen dute, *ahimsa edo bortxaezaren irakatsian oinarriturik.

Ik. Haratuztea; Jainismoa; Garbia/Lohia.

Laneko apaizak

Ik. Apez langileak.

Langileetako misioa

Langile-mundu dekriztautua ebanjelizatzeo ekintza da. Hortik sortu zen apaiz langileen mugimendua ere, Frantzian berebiziko garrantzia hartu zuena. Horien ebanjelizazio-metodoa testigantza-bidezkoa zen batez ere.

Ik. Ebanjelizazioa; Aitormena; Dekrizautea.

Lareak

Erromatarren artean "familiako lareak" ere deitzen zien, etxearen babesletzat hartzen zituzten izpirituei. Etxean gurtzen zituzten; eta hildakoenganako gurtzarekin nahasten zen sarritan haienganakoa.

Berezikiago etxe-jainkoak adierazteko erabiltzen zuten lareak izena.

Ik. Etxe(ko) gurtza; Etxea.

Larritasuna

Sin.: Larrimina; Estutasuna

1. Orokorki harturik, bakardadeak, eta premia eta gabezia, zoritxarra eta ezbehar izugarria ikusteak eta bizitzeak gizaki askorengan uzten duen arimako sentipen berezia, eta horrek eragiten dien ikarazko jokabide psikologikoa.

2. Erljiozko alorrari dagokionez, Jainkoaren edota indar jainkoetsiaren aurrean gizakiak nabari duen izua edo beldurra da.

Erljio-fenomenologiako kontzeptua da, Kierkegaard-ek bereziki ezagutzera eman zuena eta existentzialismoak eta teologia dialektikoak landu dutena. *Misterioaren eta zer sakratuaren aurrean gizon-emakumeek duten jarrera eta jokabide berezia da, haren-gandiko urruntasun-sentipenetik eta norberaren bekatuazko eta gaizki azko jabetasunetik sortzen dena.

Ik. Izugarria, zer; Jainkoaren beldurra.

Larunbata

Ik. Zapateria.

Latitudinarismoa

Edozein erlijioiok *salbamena lortzeko bidea eskaintzen duela baieztatzen duen iraka-